

JOSTALLUAK?

Ez diñot nun, baiña ba-detnik famili adiakide bat, oso jatorra. Guraso ta seme-alaba, lorategia dirudi seik osotzen duten famili orrek. Zazpi urte dira euskal baratx ontako guraso zintzoak ezkondu zirala, ta lau lili mardul dauzkate engoitik, Jon Mikel, Josu, Itziartxu, ta Aitor, buru-zut, bizkor, beginirair, ille kizkur ta masail gorri panpox. Nolako pinportak!

Erregeen ostetxoan ara nintzan ni, ikustaldi bat egin-asmoz. Atea zartatu ordukoxe, ango istillu ta zarata! Lenengo laztan ta txera-agurrak egindakoan, artera giñan zerbait. Gabon, Urte berri ta Erregeenak nola eman zituzten ta beste galdera ta izketaz labur ekin ondoren, Jaiotza ikustera eramanez ninduten; an giñean zar ta gazte, aurtxo ta nagusi. Zer zan ura! Gauza txukunagorik! Poliki poliki zeuden iduri guztiak, eta ertzean Aurtxoaren seaska, Maria ta Jose, ta idia ta astoa inguru zitularik. Antxe bertan abestu gendun, denok pozkiro, «Oi gau» ta «Aur txikitxu ta polita». Irripar gozoa zegigun Jesus Aurrak.

Ondoren, ordea, nola ikusi gabe utzi Erregeak ekarritako jostailuak? Txiki ta aundi, zelako meta! Andrakillak, zizpak, beribillak, bultziak, txirringutsak, iru-txirringakoak, mosukitarrak, sukaldeak arkatxak, putzezko ta larruzko pelotak, danetik zerbait. Umetxoak, hakoitzak berea oratu zun artez ta beingoan: Jon Mikel'ek zizpa, Josu'k mosu-kitarra, Itziartxu'k pianua ta Aitor'ek pelota. Aien zaratotsa, aien iskanbilla beren tramankuluekin!

Denda batean aiña jostailu zeukaten. Zeintzuk ziran, baiña, geienen maite zituztenak? Au galdeturik, Mari etxeko andreak onela erantzun zidan: «Ikusten dituzun lau oek, sei urtetik beerakoak dira; edozerkin ematen dute denbora, baiña maiteen ta begikoen txirringutsak, zizpak, mosu-kitarrak eta soñuzko jostailuak dira. Ikus txiki ori, bi urte ta erdi dauzka, ta alare egun osoan ezta ixiltzen bere pianu astun orrekin». Egia zan, orduan ere, sekulako doiñuak zebilzkin bere organuan jo ta jo.

Gaurko umeak ba-du bere pentsakera berezia. Baiña maite ditu, geronek aspaldian bezela, bere aur-egunak emateko bear ditun jostailuak; batzuk geiango, beste batzuk ez orrenbeste. Eta jostailu auek ez dute beren moda edo garaia urritu ta galtzen; beti jira-biraka dabilzanak dira, urte-aroen gisara. Aur-aroa laburtu egin da, noski; osagille batek esan oi dit: «Umeak gaur bertatik irikitzen dituzte begiak; len etzan orrela, zazpi-zortzi egun bear zituz-

ten argi eraman al izateko».

Egia; eta gaur lo igaro oi zaitun egun ta ordurik asko, gaurko umeak olgetan ta jolas sear ematen ditu. Jostailuak, aatik, bearrezko zaizkio. Orrelaxe, lorekuskua bai'litz, zabald oi zaio biotza, izate osoa. Len-urte auetan, bere buruari gorputz aldetik begiratu ezkeraguztiz mee ta auskor bait-dago, etzaio egoki ikasketa gozorrak, neke aundiko lanak. Eta ikasketan oi oien orde, jostailuz ikastendu, sei urtetik beerakoak batesere.

Geroago, bederatzi-amar urtetara iritxitakoan, egia, buruz lan egingo du, batxiller ikasketak egin nai baditu bereziki; baiña, bitartean, aurtzaro egunetan, kirol ta jolas-orduak berezko ditutu. Haitu ortan, soñez osasuntzu azten da ta buruz ere geroarako gertatzen. Aro bakoitzak gainera, dagozkion bearrianak ditunik ezin ukatu: lau urtearte, esaterako, umeak bere jakinaia asetuko du; ortarako, ikusmiñez, esku artean daukan oropuskatuko. Gero asmotsuaz izan oi da; indiotar dala uste da aien jantziz apaindurik, itxartar, egazkinlari; labur, agur-zale. Etxeak, zubiak, tren-bideak eta abar egitea ere atsegin zaitu.

Neskatoak berak ere, iduri menari askatasun-lokarriak kendurik, nagusitxo antzera jolas ten dira. Ni bizi naizen kometu aurreko zugaztian, egunero bildu oi da neskato-mordoa; ta nolako gauzak dauzkaten aldian berea emateko! Batzuk su Kaldari dira, eta ama nagusier itxurak egiñik, plazara joate bear dutena eroatera. Pillok dituzte or baztarretan pertzak platerak, txangillak, zartainak txolak, potoak.

Amar urterako, berriz, gaztaroa lertu, ta kirol-zaletu zaizkigu ume guztiak. Naiz gorputzarako naiz animarako, zaletasun au ezta txarra; baiña gurasoal arteztu, bai, egin bear dute; eba'legie, kaltegarri litzake. Zer gatik? Larrekia orotan gaizki, ta askotxo dira gaur kirol-kontar ezik, ezertan ere tautik ez da kitenak. Ba-du gizonak ori baiño premiñazkoagorik.

Gorago aitaturiko famili ortako umetxoak, egia esan, jostailu-zale ditugu; baiña au diñu amak: «Etzait bat ere atsegin ene semeak, beti zizpaka ikustea». Ta zer egiten? Aita mendi-zale baita, bi nagusienak arekin mendira bialdu, batez ere igande ta jaietan. Eta auek orain, egunaldi onez beintzat, naiago dute mendiko lore, zomorro ta bildostxoekin jolastu, etxe-zuloan zizpakin baiño. Beti egi aundia; umeak argizati antzo gurasoen esku artean; zek ikusi, uraxe ikasi.

Aita Onaindia

"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN

FRANQUERO CONCERTADO N.º 37 - 21

Aita Onaindia (PP. Carmelitas)

AMOREBIETA

A (Vizca)